

EUSKEREA. Legebiltzarraren plan nagusia tokian tokiko baldintzetara egokitzeko ahalegina koordinatuko dabe

Udaletako euskera zerbitzuak koordinetako sortu da Alkarbide

Tokian tokiko planak sustatzeko balio izango dau bilguneak, erakundeek laguntzeagaz

Iñigo Bilbao

Bizkaiko Udaletako euskera zerbitzuek bilgune bat sortu dabe hizkuntzearen mesedetan egiten diran ahaleginak bildu, alkarizketea landu, eta tokian tokiko plangintzen ganeko neurriak proposatzeko. Horretarako, eta euskalgintzan diru publikoagaz egiten dan erabilera hobetzeko. Asmo horrekin sortu dabe Alkarbide, atzo aurkeztu zan bilgune barria.

Ekimena ez da hutsetik sortu. Bere garaian Legebiltzarrak

onartu eban Euskera Bizibarrizteko Plan Nagusia hainbat behar ildo zehaztu ziran, eta Alkarbide horreek guztiak Bizkaiko udalerrietan garatuz joateko sortu dabe. Oinarrian Jauraritza berak, tokiko agintariak biltzen dituen Eudel alkarateak eta, batez be, Diputazioaren Kultura sailak azken hileotan egin daben ahalegina dago.

Jaio barri dan alkaratea aurkezteko, Eudel alkaratearen egoitza nagusia bildu ziran, atzo goizean, lurraldeko hainbat alkate, zinegotzi eta euskera

teknikari. Ekitaldia aurkezten, aitatutako erakundeetako goi karguak: Josu Bergara ahal dun nagusia, Ana Madariaga Kultura foru diputaua, Karmelo Sainz de la Maza Eudeleko lehendakaria, eta Patxi Goenaga Kultura sailburuordea.

Madariagak gogoratu eban euskerea sustatu eta erabilera bultzateko Aldundiak, 1999an, Euskera Zuzendaritza Nagusia sortu ebala. Bizibarrizte planean zehazten diran helburuak kontutan hartuta, Diputazioak «prozesu horren gidari izateko konpromisoa» hartu dauela azpimarratu eban diputauak.

Batua zein bizkaieria, euskerea bakarria dala nabarmendu ostan, azken boladan entzun diran kritikak txarretxi zituan Madariagak. Bide horretan, Alkarbideren garrantzia nabarmendu, eta bilgunea ez dala «goitik behera inposatu dan egiturea», baizik eta tokian tokiko ahaleginak koordinetako sortu dana aitortu eban.


Gotzon Lobera saileko zuzendariak Alkarbide zer dan eta zertarako sortu daben azaldu aurretik, Josu Bergara ahal dun nagusiak argi itxi eban posturia erabilera bultzatea dana: «Tokian tokiko jarduera egokiak bultzatu behar doguz, apurka-apurka euskerea herritarren komunikaziorako lanabesa izan daian», esan eban Bergarak.

Bilgunearen nondik norakoak

Bilgunea bera sortu aurretik, udalerrietan emoten zan egoeria aztertu behar izan dabela argitu eban Loberak, bilgunearen nondik norakoak zehaztu aurretik. Behar horren ondorioz, *Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskera zerbitzuak: egungo egoeria aztertutik koordinazino bilgunea osatzera* izeneko azterlana osatu dabe Kultura saileko teknikoei.

«Hasieran egoereaz jabetzeko bitarteko hutsa zan azterlana euskalgintzako arlo eta maila guztietarako beharretako tresna baliagarria bihurtu da», gaineratu eban Euskera zuzendariak. Esan ebanez, udalerrietan jasotako erantzunen arabera, hiru ziran nabarmentzen ziran premieak: koordinazinoa, prestakuntzea eta trebakuntzea, eta egitasmoak jorratu ahal izateko laguntasuna.

Bilgunearen zereginak be aiatatu zituan Loberak: «antzeman diran hiru beharrian nagusi horreek asetzeari», lehenengo eta behin; «eragingarri eta eragin korra izateari», bigarrenik. Horreez ganera, Euskera Bizibarrizteko Plan Nagusiaren ildoak, erizpideak eta aginduak beteteko laguntasunak ipiniko ditu Alkarbidek, eta, amaitzeko, 2005 urtea bitartean Bizkaiko euske-



MONIKA DEL VALLE/ARGAZKI PRESS

Hainbat alkate, zinegotzi eta euskera teknikari bildu ziran Eudel alkaratearen egoitzan, Alkarbide ekimenaren aurkezpen publikoan.

PATXI GOENAGA KULTURA SAILBURUORDEA

«Dirua behar da, baina diruagaz bakarrik zenbait ideia ezin dira bete»

I.B.

Alkarbide euskerea bizibarrizteko egitasmoa sustatzeko lanabesa izango da. Horixe nabarmendu eban, aurkezpen ekitaldian, Patxi Goenaga Kultura sailburuordeak.

■ Zer eskaintzen deutse Alkarbidek udalei?

Hasteko zer dagoen jakitea lortu da. Herririk herri zer azpiegiturak eta zelako planak dagozan, edo ez dagozan zehaztu da. Asmoa Aldunditik etorri leitekezan diru laguntzak bideratzea da, dagozan zerbitzuak hobetu, ugaltu eta sendotzeko. Eta zerbitzurik ez dagoen lekutan, ahaleginak

egingo dira sortzeko, edo al-boko herrien laguntza hartzeko. Daukaguzan indarrak biltzea, horixe da asmoa.

■ Zein da preminarik handiena, dirua edo ideiak?

Biak, behar bada. Ideiak badagozala uste dot, baina egia da diruagaz bakarrik zenbait ideia ezin dirala bete. Erabilera zelan bultzatu behar dan asmatzeko... hor, igual, ideia falta egon leiteke. Horretarako ez da diru asko behar.

Dirua behar da, jakina, inoiz ez dalako nahikoa; baina ideiak be landu beharko dira.

■ Herri euskaldunetan be arazoa erabilera da, ezta?

Bai, batzuetan beste batzue-

tan baino gehiago, baina herri-rik euskaldunenean be asko jaisten da ezagutzatik erabilera doan aldea. Leku batzuetan nabarmen, ganera.

■ Zenbait lekutan badira herritar euskaldunak, baina ez agintari euskaltzaleak. Zer egin horrekin?

Udal agintariekin ez dakit zer egin beharko litzatekeen. Hurrengo baten beste batzuk hautatu, akaso. Uste dot Alkarbide lako gunee batek badaukala eragina, hor udalerri guztiak dagozalako. Erritmotan egon leitekez arazoak, baina uste dot herri guztietan onartzen dala euskera zerbitzuak ipini behar dirala, eta



EGUNKARIA

hori guztien gogoan dagoela. Euskaltzale ez danak be, arazo lez ikusten dau eskolan ikasi bai baina gero erabilteko aukerarik ez dagoela. Uste dot horri buelta emoteko gogo badagoela. Zer egin? Inguruko herrien ereduarekin, agian, gauzak hobetu leitekez.